

ATLETISMOA

Nebioloren itzalean Donostiako Nazioarteko Krosa aurkeztu zen

IAAFaren Munduko Kros Challengearen barruan dago Donostiako Krosa

Urtarrilaren hogeitazazpian jokatu den Donostiako Krosak goi mailako partaidetza izango du. IAAFak ezarritako baldintzak oraindik bete ez baldin badira ere, oraindik ere beste hainbat korrikalari lortuko dituztela uste dute antolatzaileek.

MIKEL ARRIETA / DONOSTIA

Nazioarteko Atletismo Federazioko (IAAF) lehendakaria den Primo Nebiolo mahaiaren buruan zegoela, urtarrilaren 27an jokatu den Donostiako Nazioarteko Krosa aurkeztu zen atzo. IAAFak lehen urtez burutzen duen «Munduko Kros Challengearen» barruan sartu da Donostiako proba, (Zornotzakoarekin batera) eta honek zenbait baldintza bete beharra eskatzen du.

Antolatzaileek, rankingaren lehen postuetan dauden zortzi herrialde eta hamabi korrikalari lortu behar dituzte proba hau challenge-rako baliogarria izan dadin. Atzo emandako zerrenda honen arabera, baldintza hauek oraindik ez dira bete, baina antolatzaileek aditzera eman zuten, hemendik hogeitazazpia bitartean beteko da.

MAILA HANDIKO PARTAIDETZA Hala ere, urtarrilaren hogeitazazpian jokatu den Donostiako Nazioarteko Krosak maila handia izango du. Aurreko urteetan protagonista izan diren Etiopiako



Albistur, Nebiolo eta Ripalda Donostiako Krosaren aurkezpenean. C. VILLAGRAN

korrikalariak arituko ez baldin badira ere, maila ziurtatua dago. Gipuzkoako Atletismo Federazioko lehendakaria den Patxi Ripaldak atzoko prentsurrekoan azaldu zenez, «IAAFak jartzen dituen baldintzekin ezinezkoa da Etiopiako talde osoa ekartzea. Maila handiko korrikalari asko ekarri behar dira». Filosofiaz aldatu behar izan dute antolatzaileek. Lehengo urteetako edizioetan ez bezala, iritxeagatik soilik diru sariak emango dituzte aurtan.

Partaidetzari dagokionez, honako korrikalari hauek ziurtatu dute Do-

nostiako hipodromoan egongo direla: Marcelo Cascabelo eta Antonio Silo Argentinatik; Alejandro Gomez, Jose Manuel Garcia, Estela Estevez eta Julia Vaquero Espainiatik; Cyrelle Laventure Frantziatik; Richard Nerurkar Erresuma Batutik; Roisin Smyth Irlandatik; Julius Korir, William Mutwol, Wilson Omwoyo eta Susan Sirma Keniatik; Mohamed el Masoudi Marokotik; Viorica Ghican eta Julia Negura Errumaniatik; Marciannne Mukamurenzi Rwandatik; Ricardo Vera Uruguaytik eta Pat Porter Estatu Batuetatik.


IAAFeko kontseilua Donostian bilduko da gaur eta bihar

M.A. / DONOSTIA

Nazioarteko Atletismo Federazioko mandataria Donostiako Maria Cristina hotolean bilduko dira gaur eta bihar. Primo Nebiolo italiarraren zuzendaritzapean, gai garrantzitsu ugari eztabaidatuko dituzte nazioarteko atletismo zuzendariak Nebioloz gain, Leonid Khomenkov (SESB), Ollan C. Cassell (Estatu Batuak), Lamine Diack (Senegal) eta Arne Ljunqvist (Suedia) zuzendari ordeek, Robert Stinson diruzainak eta beste hemezortzi kidek osatzen dute IAAFaren komisioa.

Primo Nebiolok, atletismoaren urtea izendatu du 1991. urtea. Munduko Indoor Txapelketa Sevillan, Munduko Maratoi Kopa Londresen, Munduko Kros Txapelketa Ambersen, Munduko Ibilketa Txapelketa San Josen eta Munduko Pista Txapelketa Japonian. Azken honek interes berezia sortarazi du nazioarteko mandatarien artean.

Garrantzi handiko ekitaldi hauen antolaketa lanak aztertzeaz gain, beste hainbat gai eztabaidatuko dituzte IAAFeko buruzagiek. Kontseiluko kide guztiak



Primo Nebiolo.

egongo dira Donostian, Kuwaitekoa salbu. Gerra dela eta, Elisa Al Dashti kuwaitarrak ezin izango du Donostiako bileran egon. Gonbidapen eskutitza ireki gabe bidali du berriz ere Dashtik, azalean «Herria borrokan» jarritz.

FUTBOLA

Gorrizek eta Gajatek beste bi urterako sinatu dute Realakin

MIKEL ARRIETA / DONOSTIA

Agustin Gajate eta Alberto Gorritz jokalariek beste bi urtez sinatu dute Realakin. Bi jokalariek atzo arratsaldean sinatu zuten Donostiako taldearen egoitzan Iñaki Alkiza lehendakariaren aurrean.

Realak komunikabideei luzatutako agiriaren arabera, Javier Exposito entrenatzaile berriaren eskaerari

erantzunez heldu dira akordiora Gida Batzordea eta jokalariek. Bi jokalariek 1991ko ekainaren hogeitamarrean bukatzen zuten kontratua.

Zorte ezberdina izan dezakete lehenengo taldeko beste zenbait jokalarik. Uriak eta Dadiek adibidez ekainean bukatzen dute kontratua, eta Exposito Boronaten iritzi berekoa baldin bada, bi jokalariek hauek taldetik kanpo gera daitezke.

KIROLDEGIA

Espainiako futbolaren saneamendua gaur sinatuko dute LFpk eta CSDk

X.M. / DONOSTIA

Espainiako futbolaren saneamendua plangintza gaur sinatuko dute Kirol Kontseilu Gorenak (CSD) eta Futbol Profesionalaren Ligak (LFP). Hamabi urteko epean, Lehen eta Bigarren mailako taldeek duten 24.000 milioi pezetako (1.200 milioi libera inguru) zorra kitatu nahi da, Kirolaren Legeak agintzen duen bezala futbol taldeak Elkartek Anonimo bihurtu aurretik. Athletic, Osasuna, Real Madrid eta Barcelonak ez daukate Elkartek Anonimo egitera behartuta, baina bai beste guztiak, Realak, Eibar eta Sestao barne.

1.985ean ere egin zen saneamendua plangintza, baina ez zuen ezer konpondu. Orain, Lehenengo mailako taldeen zorrak asko jaitsi badira ere, orotara zorra izugarria da, eta berriz porrot egingo duen beldurra hortxe dago.

Estatuarekin (Hazienda, Seguratasun Soziala...) 16.000 milioi pezetako zorra dute futbol taldeek, eta

8.000 milioitik gorakoa erakunde pribatuekin. Hauek kitatzeko, kinielekin biltzen den dirutzaren % 7a jasoko dute klubek; Estatuak 1.800 milioi pezetako berma eskaintzen du, kinielatan aurkikusitako kopurua ez bada biltzen.

Horretarako banakako konbenioak eskatu beharko dituzte futbol taldeek LFPrekin. Futbol zelaietako sarrerak eta takilaian jasotzen den dirua kontrolatzeko sistimak ere ezarri beharko dituzte, LFpk eta CSDk behartuta. Ligak klubak kudeaketak kontrolatzea ere eskatzen du. Trikimailuren bat igarritz gero, iruzur egin duen elkarteak plangintzatik ate utziko lukete, eta desagertu egingo litzateke, ziurrenik.

Klub bakoitzak urteroko diru sarreraren % 1a ordaindu beharko du gutxienez, kuota gisa. Elkartek Anonimo bihurtuko diren taldeek LFPe bere kontuen auditoria egitea onartu beharko du gainera, urtero.

Aipagarria, Osasuna da Lehenengo mailan Estatuarekin zorrik ez

Lehen mailako zorrak

At.Madrid	2.556.094.017
Betis	2.223.875.278
Barcelona	1.687.772.383
Sevilla	1.192.823.076
Zaragoza	1.069.586.748
R.Madrid	1.055.456.991
Español	837.563.308
Sporting	729.564.259
Valencia	695.414.202
Osasuna	571.140.619
Cadiz	554.909.924
Athletic	534.554.207
Logroñes	484.617.691
Realak	373.886.228
Valladolid	373.489.633
Castellon	319.303.000
Oviedo	316.180.933
Mallorca	285.550.121
Burgos	147.111.382
Tenerife	120.118.389
Guztira	16.109.212.689

* Zifrak pezetatan emanak daiz

duen talde bakarra Espainiako Ligan. Athletic aldiz, garbi dago erakunde pribatuei dagokionez. Hala ere, Realak da euskal taldeen artean diru gutxien zor duena.



Gajatek eta Gorrizek irrifarre egiteko aitzakia badute.

ANDER GUILLÉN